

Aintzin solasa

Ale trinko eta mamitsua BAT-en 13-14. hau.

*Zalantzarik gabe **Kale erabilpena** ren neurketari buruzko emaitzak dira lanik garrantzitsuena. Prentsa bidez jadanik emaitza horiek azalduak izan badira ere, behin eta berri arakatu beharko dira.*

Alde batetik, berreskurapenaren diagnosi zehatza eman daiteke gaur: herriz herri, adinen arabera, eta abar. Aspaldiko partez, euskararen gizarte-bizitasunaz mintza gaitzke funski; eta hipotesi diakronikoak egin.

Beste alde batetik, Euskal Herriko Glotopolitika finkatzerakoan, zedarri seguruak ditugu gaur. Ez baita gutxi!

Eta, hirugarrenik, eta esperantza iturri, oso maila eta hein apalean bada ere, gure nazio-hizkuntza gorantza hasi dela esan dezakegu lehenengo aldiz. Aspaldisko honetan burutu diren neurketa guztiek (eta ez EKB-renek bakarrik), euskaldun elebidunen leialtasunaren sendotzea erakusten dute, euskaldunen arteko trinkoketa; eta, hitz batez, hizkuntzaren kontzientzia azkartzen hasia dela ageri da.

Berri hauek ezin garrantzitsuagoak dira. Eiren inoiz egon ez den herriagandik gorako indarketa, Euskal Herrian hozitzen hasia dela erakusten dutelako.

Gero eta garbiago dago hurrengo urratsa zein den: euskararen erabilpena oztopen duten erdaldun hutsen kopurua murriztuz hastea. Euskalduntze-lana, hitz batez. Euskalduntze-lanetan diharduten erakundeek laguntza osoa merezi dute, hitz batez.

Mementua iritsi da, era berean, erabilitako hizkuntzaren kalitateaz arduratzeko. BAT ale honetantxe ikus daitekeenez (J.M. Agirre-ren artikuluko zifretan ohar daitekeenez, adibidez), gero eta gutxiago dira, proportziotan, euskara bide "normalez" jasoa

dutenak. Garaia da, beraz, euskararen **jatortasunaren alorrean** indar bereziak ipintzeko.

Lekeitio, Usurbil, Oiartzun, Ondarroa, Oñati, Azpeitia eta Azkoitia, hein batean bederen, euskaraz **bizi diren herriak** direla ikasteak, berreskurapenaren hedaguneak non izan daitezkeen argitzen digu. Berak baitira gero euskaldunaren aintzindari eta gotorlekuak.

Orain dela bi mende Aita Kardaberatzek **Eusqueraren berri onak** eman bazizkigun, oraingoan kale-neurketen bidez eta Kike Amonarrizen eskutik zabal ditzakegu gaurko **albiriste onak**.

Baina bada besterik ale honetan euskararen berreskurapen horri buruz. Behetik gora datorren bultzada nabarmen hori alferrik galduko ez badugu.

W. Mackeyren iritziak, esate baterako, oso garrantzitsuak dira; plangintza arazoetan eskarmentu handiko gizona baita eiretar-kanadar sozio-linguista famatua. Mackeyk, esate baterako, argi eta garbi azpimarratzen du "hizkuntzak erabat beharrezkoa" izan behar duela; eta, azken funtsean, jautzia emateko baldintza "hizkuntz gaitasuna" dela. "Euskera apurtxu bat" jakiteak, hitz batez, ez du erabilpena bermatzen.

Telebista kate bat izatea, bide bertsutik, ez da aski: ETBk, Mackeyren ustez, "oso ona izan behar du kalitatearen aldetik", eta "emanaldi interesgarriak eskaini". Oso garrantzitsua ere euskaldunen arteko "endogamia"ren alde egiten duen dei ausarta (Suomiko suediarren artean, esate baterako, maiz azpimarratua). Hori ere "trinkoketa" baita.

GORAXEAGO ere, J.M. Agirre **Eustat** ofizialeko Zuzendariaren ideia batzuk aipatu ditugu. Igoeraren moteltzea horren ausarki aitortzea oso inportantea da. Isasi irakasleak behin eta berriz errepikatzen baitu hori azken bolada honetan.

Isasik, hain zuzen, Errolden miaketa zorrotza egiten digu ale honetan. Ezagueraren tipologia ofizialak erakusten dituen alderdi ahulak eta iluntzaileak nabarmentzen dizkigu berritro. Zifren azterketak helduen euskalduntzeak "indarra galdu duela" azpimarratzen du.

Artikulua ez da irakurtzen erraza; eta honek, zoritxarrez, uxatu egingo du irakurle bat baino gehiago. Euskal Soziolinguistika beste fase batean sartu dela agertzen da zailtasun horietan; hemendik goiti ez baita posible izango euskararen problematikaz lau kaikukeria esanda inor betetzea. Bai Isasiren lan hau, bai beste asko, ikerkuntza zehatzaren ondorio dira; eta arreta luze eta sakona merezi dute.

Gauza berbera esan behar da Paulo Iztuetak **Euskal Eskolaz** eskaintzen digun lanaz. Ikastolaren krisiaz agian inor baino jantziago, azterketa kritiko ezin zorrotzagoa eskaintzen digu hemen **publiko/pribatu** dikotomiaz, garai batez ezkerkeria merkeen aitzakien ikastolaren kontra burutu ziren erasoez, hiru ereduaren balioaz, etab...

"Euskal Eskola Publikoaren legeak -irakur dezakegu- hipotekaturik utzi du aldi baterako irakaskuntza euskaldunaren etorkizuna". Sartu gaituzten zulo honetatik nondik jaregingo? Beharrezko galdera, jakina; alderdi batean zein bestean arriskuak nabarmen baitaude, eta indar euskaltzaleak ere ez urri.

Proposamena denek begi onez ikusiko ez badute ere, Paulok bere soluzio-bidea proposatzen du: "baterakuntza". Nola? Noiz? Zein hurbilbidez? Galdera pilo bat, noski.

Ipar Euskal Herria ahantzi egin ohi zaigu aisa Hegoalde honetan bizi garenoi. Gertakarien larritasunaz behin eta berriz alde honetako arazoetan tematurik, ongi etorri ohi zaigu Ipartar anai-arreben berri jakitea.

Antzeko zerbait gertatzen da maiz Unibertsitatean izan ohi ditugu arazoez. **Euskararako Institutua**, adibidez, zertan da?

Tolosa, Gasteiz, Atarrabia eta Lizarrako ikastolak elkartzea, bestalde; eta elkar aditurik ikasleen **bapateko komunikazio ohiturak** nola euskaldunduko, iker-alor ezin interesgarriagoa da. Lau ikastola handi horietan lorkizuna hau baita: askotan erdaraz hezia izan den haurra, irakatsaldi "ofizial"etatik at ere, euskaraz nola treba ote daitekeen aztertzea.

Gorostidi alor horretan eskarmentu handiko gizona izanik, inor gutxi eskaini liezaguke problematika horren ikuspegi fidagarriagorik. Berritoki ere B ereduaren ahulezia salatzen da, eta murgiltze osoaren aldeko apostua egiten. Ez baita hutsaren hurrena Aren aldeko agiri sutsuak ugaltzen diren ulean.

Oso egokiak, era berean, **Euskaraz Bizi** Ikastola Elkarteak jokoak euskaraz egitearen alde egiten dizkigun oharak. Mackey-ren gustokoak segurki.

Ezin Sarrera lerro hauek areago luza.

Gutziz argitsu eta beharrezkoak J.M. Odriozolak, Esteva Fabregaten liburua aitzakia, euskaltzaletasun **apolitikoaren kontra** egiten dituen ohar zorrotzak. Euskaltzale zerutar batzuen aurka hizkuntza berreskurapena mamitzen diren baldintzapen **politiko, ekonomiko eta militarrek** mahai gainean jartzea guztiz da beharrezkoa.

Zinez esan dezakegu Odriozolaren lan hau gogoan hartu beharko luketela alor politikoan ari diren euskaltzale guztiek. Bat dator gure laguntzailea katalanarekin. Nor ez, egia esan? Eztabaida zaharrak Odriozolak berriro plazaratzen dizkigunak.

Sasi-konponketak modan bide dauden honetan, erabat beharrezkoak **Iturri Bila** honetan gogorazten diren erantzunak.

Unibertsitatearen kinka honetan (lerro bakar bat? bi lerro? bikoizketa ote?), informazio iturri aberatsa Fito Bornaetxeak eskaintzen duena.

Eta interesgarria, era berean, Valencia-ko gorabeherez Mollà eta Pitarch sozilinguista adiskideek eskaintzen digutena.

Luzeegi doa aurkezpen hau. Eta hementxe ebaki beharra, barka. Lanetara beretara jotzea onena.

Txillardegia